

1660. URTEKO ERREGE EZKONTZAREKIN LOTURIKO

TOKIEN GIDA.

HIRUGARREN INGURUA

1660ko ekainaren 3an, Hondarribian, eta 9an, Donibane Lohitzunen, izandako ezkontze-ospakizun bikoitzek 1659ko azaroaren 7an Mazarino Kardinalaren eta Luis Méndez de Haro jaunaren artean adostutako Bake Ituna berretsi zuten.



Bakea sinatu ondorengo zazpi urteetan izandako gertakizunak Bakea sinatu zenean espero zenaren oso bestelakoak izan ziren. Frantziako Luis XIV.aren gailentasun militarerako politikaren helburu nagusiak bi ziren: batetik Frantziar Erreinuak XVI. mendetik Itunaren sinadura arte bizi izan zuen Austriarren dinastiaren jazarpenetik aldentzea eta, bestetik, Europako gainontzeko herrialdeen eta hauen kolonien aurrean indar izugarri eta boteretsu bihurtzea. Jarrera honek 1660an Faisaien uhartean (eta inguruetan) agerturiko borondate ona irudipena baino ez izatea ekarri zuen.

GERTAKARIETAKO PROTAGONISTAK



Luis XIV.a (1638-1715). Eguzki errege ezizenez ezagutzen da. Honek, bizi izan zuen erregetza luzean zehar, Frantzia Europako indar militar nagusi bihurtzeari ekin zion, nahiz eta hasera batean, koroa jaso eta artean adin txikiko zela, noblezia handinahi eta asaldatzaileak behar zuen oinarria kendu zion tronuari. 1659ko Ituna eta, ondorioz, lehengusinarekin ospatu zuen adostutako ezkontza bide aldakor baten hasera izan ziren, bai bere erregetzan zehar, baita ondorenean ere.

Felipe IV.a (1605-1665). Planeta errege ere deitzen zaio. Luis XIV.aren odoleko osaba zen, baina gudu-zelaian honen etsai nagusia ere bai. Pirinioetako Bakearen bitartez lortu nahi izan zuen helburu nagusia bere ilobaren asmo espansionista geratzea zen, geratzen zitzaizkion urteetan egin bezalaxe. Bere heriotzatik (1667tik) bi urtera, Luis XIV.ak espainiar monarkiari guda irekia deklaratu zion, erregea adinez txiki izateaz baliatuz. Horretarako bere lehengusina Maria Teresarekin ospatutako ezkontzaren hitzarmenak posible egiten zuen lege amarru bat erabili zuen aitzakia gisa: oraindik ezkonsaria jaso ez zuela eta, Flandriako espainiar jabetzak ordainetan jaso nahi izan zituen.




Austriako Ana (1601-1666). Frantziako erregina alarguna. 1615ean, 45 urte geroago ospatu zenaren antzeko zeremonia batean entregatua izan zen, helburu berdintsuekin (frantziar eta espainiar koroen arteko bakea berrestea). Urte askoan ikusi gabeko anaiarekin elkarrizketa hotz bat izan zuen, izan ere, Luis XIII.aren alargun zen aldetik, Luis XIV.aren adin-nagusitasuna heldu arte, erregeorde funtzioak betetzen baitzituen. Ilbari eman zion harrerak nolabaiteko berotasuna islatzen du, Anak berak 1615ean bizitako etorkizun bera zuen printzesa zenez, ziurrenik hartaz erruki baitzen.




Austriako Maria Teresa (1638-1683). Nahiz eta aitak asko maitatu, 1660ko ekainean Faisaien Uhartean ospatutako emate ekitaldian azaldu zuen bezala, ez zuen zegokion patu desatsegina saihesterik izan. 1635etik bizi zuten gerra egoerari eutsi ezin zioten bi monarkien arteko bake ituna berresteko helburuarekin berme politiko bezala sakrifikatu zuen aitak eta hortik aurrera patxadaz bete zuen eman zioten eginkizuna, bere jatorriaren kontrako giroa agertzen zuen gorte bateko erreginarena, alegia. Senarrak behin eta berriz eta era guztiz agerian desleialtasunez jokatu zuen eta Maria Teresak estoikoki bigarren maila isil eta iluna mantendu zuen, une hartan beregandik espero zen bezala.

Julio Mazarino Kardinala (1602-1661). Ospakizun hauetan ez zuen 1659ko abuztuaren eta irailaren artean hasi eta gauzatu ziren negoziaketetako paper garrantzitsua izan, Luis XIV.aren presentziak itzal egin zion eta. Hala ere, 1659ko Itunari amaiera emateko ospatu zen ekitaldi honetan izan zuen papera aintzakotzat hartu behar dugu: bai ikuspegi sinbolikotik (erregeren eta erreinuaren babesa irudikatuz, honen aitabitxi eta lehen ministro zen heinean), bai praktikotasunaren aldetik, zeren eta, gai gehienak aurreko urtean eztabaidatu eta onartu zituzten arren, printzesa ematearen aurretik eta ondoren, Harorekin mantendutako elkarrizketek lotu gabeko zenbait kontu ixteko balio izan zuten. Beste gai batzuk, Bidasoaren eta Faisaien irlaren zatiketarena, adibidez, kardinalaren heriotzaren ondoren ere (hurrengo urtean gertatu zen hau), konpondu gabe geratu ziren, denbora luzez.



Luis Méndez de Haro (1598-1661). Ezkontza-ekitaldian izan zuen papera guztiz garrantzizkoa da. Luis XIV.aren ordezkari izan zen Hondarribiko Andre Mariaren elizan 1660ko ekainaren 3an ospaturiko ahalorde bidezko ezkontzan. Beraz, Luis XIV.aren nortasuna izan zuen, une batez izan bazen ere. Ondorenean, berriz ere enbaxadore ahalguztidun bezala jardun zuen ospatzear zeuden ezkontza-ekitaldietan, bigarren maila batean. Honela bere aspaldiko etsai Mazarino kardinalarekin bildu behar izan zuen beste zenbaitetan, negoziaketa mahaian mantendu zituzten elkarrizketetan, nahiz eta gai batzuk heuren heriotza gertatu ondoren ere ebatzi gabe gelditu ziren.

Henri de La Tour d'Auvergne, Turenako bizkondea, Frantziako mariskala (1611-1675). Frantziako gortearen jarraigoa osatzen zuten aitonen semeen artean bat hautatzekotan Turena mariskala azpimarra dezakegu. Koroaren zerbitzura zegoen jeneralik garrantzitsuenetakoa izan zen eta, Oliver Cromwell eta Mazarinoren arteko itunaren ondorenean, zenbait garaipen militar nagusiren eragileetako bat ere bazen, Espainiako Koroa gatazkari amaiera baketsua eman behar zitzaiola erabakitzerantz bideratu zutenenak hain zuzen ere. Bidasoara etorri izanak, Infantaren eta Frantziako erregearen arteko ezkontzarekin berretsi zen ituna bakea baino gehiago su-etena zela adierazten du. Azkenik, ondorenean ere Luis XIV.aren zerbitzura politika gerrazalea sutsuen praktikan jarri zuen militar nagusienetakoa izan zen, 1675ean Holandako Gerran hil zen arte.



Charles de Batz Castelmore, D'Artagnango jauna (1611/1615 [?]-1673). Maria Teresa eta Luis XIV erregearen arteko ezkontzan izan ziren eta ondorenean Alejandro Dumas (aita) idazleak mitiko bilakaturiko pertsonaiaetatik azpimarratu beharreko bat, Austriako Ana erreginaz gain, Charles de Batz Castelmore mosketarien ofiziala da. Faisaien Uhartea eta Frantziar koroari zegokion ibarra lotzen zituen zubia igaro ondoren, Maria Teresa, dagoeneko erregina bihurtua, eskoltatzeaz arduratu zen.



Turena mariskalaren kasuan bezala, Itunaren inguruko ekitaldietan parte hartu izanak argi adierazten digu bakeak izan zezakeen biziraupen motza. Hark bezala, D'Artagnaneko jaunak gartsu parte hartu zuen Luis XIVak 1667tik aurrera hotz-hotzean eraikitako politika oldarkorraren eta hedapen militarren zerbitzuan eta amaiera bertsua izan zuen, Holandako Gerran hil baitzen, Maastrichteko lubakietan, mariskal izateko zorian zela.

ZARAUTZ

Portu Jauregia,
gaur egungo
Zarauzko udaletxea
(Foruen
enparantza).



Luis XIV.aren eta Maria Teresaren arteko ezkontza-ospakizunetan Zarauzko hiribilduak bi modutan (bata bestea baino umilagoa) hartu zuen parte:

Batetik, Planeta erregearen jarraigoa osatzen zuten armadaren barnean zeuden Gipuzkoako 1.450 soldaduak (pika, arkabuz eta mosketez ondo hornituta eta itxura onekoak, 2 sarjentu nagusik gidatuak) probintziako ahaldunek gidatzen zituzten: Pedro Ignacio de Idiaquez eta Martin de Zarauz y Gamboa jaunek. Azken hau Zarautz jauretxeko nagusia zen. Biek hartu zuten erregearen jarraigoa Gipuzkoa eta Arabaren arteko muga, 1660ko maiatzaren 5ean, euripean.

Bestetik, Zarauzko udalak gertakizun hauetarako kalitatezko hogeita bost ohe prestatzeko konpromisoa hartu zuen (denak ez baziren ere, antzeko kopurua ematekoa bai behintzat), gorteak Hondarribian non lo egin izan zezan, ezkontza ospatu eta printzesa entregatu bitartean.

GETARIA



Kale Nagusia. Bukaeran, Salbatore Deunaren parrokia.

Getariako udalak ere jaso zuen 1660ko udaberrian Hondarribira kalitatezko zenbait ohe bidaltzeko eskaria, jarraigo handi hari hirian ostatu eman ahal izateko. Gipuzkoako aldundiak helburu hori betetzeko eman zion baimenaren arabera hogeit hamar ohe utzi beharko zituen. Aurreko kasuan bezala, getariarrek ere kopuru hori bete ez arren antzeko zenbatekoa lortzen saiatuko zirela erantzun zuten.

Era arrunt honetan bizi izan zuen Getariak 1635ean hasitako gerraren amaiera. Espainiako eta Frantziako koroen arteko gatazka honetan itsasobataila garrantzitsuenetako bat herri honetako badian izan zen, 1638ko udan Lope de Hoces enontziteria Burdeoseko artzapezpikuarenarekin aurrez aurre aurkitu zenekoa. Egia esan Planeta erregearen flotarentzako ez zen batere zorioneko topaketa izan, baina Getariako miliziak, bertako artilleriak eta Zarautz eta inguruko beste herri batzuetako udal tropek lagunduta, frantsesak lehorreratzeko ekidin eta portu hura ez hartzea lortu zuten. Artzapezkipuak atzera egin eta Hondarribira jo behar izan zuen, bere helburu nagusiaren porrota konpondu ezinean.

ZUMAIA



Olazabal Idazkaria kalea. Ezkerraldean, Olazabal jauregia; eskuinean, San Juan iturria.

Zumaiaren eginbehar nagusia, Hondarribiko udalak Getaria eta Zarautzi ere luzatu eskariari erantzunez, Felipe IV.a erregearen eta alabaren jarraigoaosatzen zuten nobleak ohez hornitzea izan zen.

Zehazki, hamar ziren eskaturiko oheak. Beste herriei baino gutxiago eskatu zitzairen arren, zumaiarrek laguntza hori ematea guztiz ezinezko zitzaizela adierazi zuten posta bidez. Beraz, Zumaiak ospakizunetan izandako papera 1638an Burdeoseko artzapezpikuaren lehorreratze saiakera ekiditen izan zuena baino txikiagoa izan zen.


DEBA



Debako Udaletxea (Foruen plaza).

Gipuzkoako kostaldeko hiribildu honek Hondarribiri Infantaren ezkontza-ospakizunetarako emandako laguntza ez da batere esanguratsua. Azken finean, Planeta erregearen jarraigoarentzako oheen eskaerari aitzakia batez erantzun zion: badirudi inolako laguntzarik eman gabe, zenbateko ohe kopurua bidal zezaketen erabakitze denbora eskatzera mugatu zirela.

MUTRIKU



Tranpakalea. Lehen planoan, ezker aldean, desagertutako parrokia zaharraren kontrahormak. Bukaeran, Berriatua dorrea.

Debaren antzeko erantzuna eman zuten mutrikuarrek: ez zekitela Felipe IV.aren jarraigoak Hondarribian ostatu har zezan oherik eman ahal izango zuten ala ez. Hiribildu honek ere, kontua eztabaidatzeko eta inguruetan kalitate nahikoa zuten oheak aurkitzeko astia eskatu zuen.

IGARTZA



Igartzako burdinola eta errotaren multzoa, Felipe IV.ak zeharkatu zuen zubitik ikusia.

Felipe IV.ak Hondarribira bidean Gipuzkoatik egin zuen bidaian, jarraigoak bizitako pasarte ezaguna ez bada ere, badakigu Arabatik iparraldera joan zen heinean, Igartzako burdinolatik pasa zela, 1660ko maiatza hasiera euritsu hartan.

Santa Kruz ermitaren inguruan pasa zuen erregeak muga, hilaren 5ean, eta Leintz-Gatzagako bide malkartsua (beretzat espresuki konpondua) jaitsi ondoren, Arrasatera gau partean heldu ziren. Maria Sanz de Andicanoren etxean hartu zuen ostatu, berrehun koseletek zainduta.

Hilaren 6an, osteguna, Oñatirantz irten zen jarraigoa eta, bertan gelditu gabe, Urretxura heldu zen, bi milizia konpainiak ongi etorria eman ziotelarik. Gau hura Juan de Necolalderen etxean pasa zuten erregeak eta alabak. Hiribildu hartan, lehen aldiz ikusi zituzten ezpata- eta emakumeen dantzak, txistu eta danbolinaren soinuak lagunduta. Hilaren 7aren eta 8aren artean pasa zen jarraigoa Igartzako burdinolatik, ostegun eta ostiralean hurrenez hurren, hain zuzen ere Ordiziara iritsi ziren egunean, eta instalakuntzak erregearen txunditu zuen. Ez da harritzekoa, azken finean Luis XIV.aren eta Maria Teresa infantaren arteko ezkontzak amaitutzat eman zuen gerra aurrera eramateko burdinazko hornigaia halako instalakuntzetan egin baitzen.

BAIONA



*Pont Mayou zubia eta Baiona handiko ibaiertza.
Bukaeran, katedraleko orratzak ikus daitezke.*

Luis XIV.a 1660ko apirilaren 21ean heldu zen Baionara bere jarraigoarekin. Bere bidaliek erregeak inolako ekitaldi eta harrera berezirik ez zuela nahi jakinarazi zioten hiribilduari. Baionar udal-buruek eskaintza eskuzabal honi entzungor egin eta zenbait ospakizun prestatu zituzten bere etorreran. Saint Esprit zubira irten ziren bere bila, Baionako eta borboitarren armarriaz, pertsona famatuen erretratuz, brankako irudi eder batez eta beste zenbait bitxikeriaz apaindutako fragata batean. Erregea Bidaxunetik etortzean bide hartatik iritsi ez arren, ontziak harrerari handitasun gehiago eman zion.

Erregeak Marignan etxean hartu zuen ostatu: Pont Mayou zubitik hirira sartzen den kalean zegoen eta Sorhaindoko jaunarena zen. Ama, Austriako Ana, gotzaitegian hiriko zinegotziek era ohoretsuan hartu zuten.

Baionan bost egun zeramatzanean, Donibane Lohitzunera joan aurretik, erregearen jarraigoak opariak jaso zituen: Luis XIV.ari asko gustatu zitzaizkion urreztatutako puntadun ehun pika, Baionako urdaiazpiko eta Capbretongo ardoaz gain; Austriako Anak ere lau dozena urdaiazpiko eta konfitura lehorrez beteriko sei plater handi jaso zituen; gorteko beste pertsonaia batzuei ere, erregearen lehengusina *Mademoiselleri*, haren anaiari eta kardinalari adibidez, ahal izan zuten jaki gozoenak eman zizkieten.

HIRUGARREN IBILBIDEA

Hondarribitik N-638a hartuz, N-Iera heldu eta bertatik jarraituz Donostiara helduko gara. Ondoren, N-634a har dezakegu eta Zarautz, Getaria, Zumaia, Debara eramango gaitu, hurrenez hurren. Azken herritik Mutrikurantz abiatuko gara GI-638 errepidea hartuz.

Hondarribitik irtetean A-8 autopista hautatuz gero, lehenik Zarautzera iritsiko gara eta bertatik N-634a erabiliz Getariara helduko gara.

Zumaiara joateko ere A-8 autopistatik bada irteera, Zarautzeko irteeraren hurrengoa hain zuzen ere.

Deba eta Mutrikura bideratzeko hurrengoa hartuko dugu, Itziarreko irteera, eta, berriz ere N-634ari jarraituz, Debara heltzeko aukera izango dugu eta, hemendik, Mutrikuraino, GI-638-tik.

Igartzara joan ahal izateko N-I hartuko dugu Gasteizerako noranzkoan eta, Beasain aldean, 417. irteera hartu, GI-2632 errepidean Beasainera bideratu eta Felipe IV.ak 1660an bisitatu zuen eraikin multzora helduko gara.

Berriz ere N-Ia Irun eta Behobia aldera hartzen badugu, azken horretan A-63 autopista edo D-810 errepidea hartu ahal izango ditugu. Biek eramango gaituzte Baionara.